

Euskaltzaindiaren araugintza 2013an

Exonomastika

Toponimiaren araugintzari bukaera emateko, astronomia lantzen hasi zen 2012an Exonomastika batzordea, eta 2012ko abenduan onartu zuen Euskaltzaindiak astroen izenen lehen atala: planetak eta planeta nanoak.

2013ko lehen hilabeteetan, arau horren hurrengo atalak landu ziren, eta 2013ko urtarrileko, otsaileko, martxoko eta maiatzeko Osoko bilkuretan onartu ziren. Astroen izenak arauak (173. araua) 335 astro-izen biltzen ditu. Zerrendaz gainera, atal bakoitzean izendapenerako irizpideen berri zehatza ematen da. Honela antolatuta dago araua:

1. Planetak eta planeta nanoak
 - 1.1. Planetak
 - 1.2. Planeta nanoak
2. Sateliteak
 - 2.1. Lurraren satelitea
 - 2.2. Marteren sateliteak
 - 2.3. Jupiterren sateliteak
 - 2.4. Saturnoren sateliteak
 - 2.5. Uranoren sateliteak
 - 2.6. Neptunoren sateliteak
 - 2.7. Plutonen sateliteak

3. Izarrak eta konstelazioak
 - 3.1. Izarren izendapena. Irizpidea
 - 3.2. Eranskina: alfabeto grekoaren letren izenak
 - 3.3. Izarrak distiratsuenetariko batzuk
 - 3.4. Konstelazioak eta asterismoak
 - 3.5. Zodiakoko konstelazioak eta astrologiako zeinuak
 - 3.6. Konstelazioen izenak euskaraz adierazteko irizpidea
 - 3.7. Konstelazioak (88 konstelazio ofizialak)
 - 3.8. Asterismoak
4. Nebulosak eta galaxiak
 - 4.1. Nebulosak
 - 4.2. Nebulosa eta galaxietan izen berezia eta izen generikoa lotzeko moduari buruzko irizpidea
 - 4.3. Izen berezia duten nebulosa nagusietako batzuk
 - 4.4. Galaxiak
 - 4.5. Izen berezia duten galaxia nagusietako batzuk
5. Asteroideak, kometak, izar iheskorak eta beste
 - 5.1. Asteroideak
 - 5.2. Irizpidea
 - 5.3. Asteroide nagusiak
 - 5.4. Kometak
 - 5.5. Izendatzeko irizpidea
 - 5.6. Kometa ezagun batzuk
 - 5.7. Izar iheskorak (meteorozaparradak)
 - 5.8. Izar iheskorak izendatzeko irizpidea
 - 5.9. Izar iheskor ezagunenetariko batzuk
 - 5.10. Eguzki-sistemako beste objektu-multzo batzuk

Arlo horietako bakoitzean, izendegiaz gainera (astro-izenen zerrenda eleaniztunak: euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa), izen horien atzean dauden irizpideak ere zehaztu dira, zerrendetan ageri ez diren bestelako astro-izenekin nola joka litekeen erakustearren.

Hala, adibidez, arauturik gelditu da Pluton planeta nanoaren sateliteetako bat Karon dela euskaraz (Charon frantsesez eta Caronte gaztelaniaz), edo zodiakoko konstelazioen izenetako bat Pisces dela eta ez *Piscis*, edo Pertseidak izar iheskorak aipatzeko badela beste izendapen bat tradizio kristauan: Done Laurendiren malkoak.

Astro-izenez gainera, bi eranskin osagarri ere ematen dira arauan: planetetako jatorri-adjektiboen zerrenda –planeta-izenekin batera ematen dira– eta alfabeto grekoaren letren izenak, izarrak izendatzeko erabiltzen direnez erabilgarriak gerta baitaitezke.

Arau horrekin oinarrizko toponimia amaiturik, kanpoko pertsona-izenak lantzeari ekin zion Exonomastika batzordeak 2013an. Iraileko Osoko bilkuran aurkeztu zuen egitasmo zehatza Exonomastika batzordeak, eta lehen araugaia ere aurkeztu zuen:

Antzinatea (I): Mesopotamia (Sumer, Akad, Asiria, Babilonia). Pertsona-izenak eta mitologia. Irizpideak eta izen-zerrendak.

Azaroko Osoko bilkurak onartu zuen araugaia, eta arau bihurtu zen. Hala ere, ez zen 2013an argitaratu, beste atal batzuekin batera argitaratzekoa delako.